

## Esklabu bat saltzen da Hondarribian

*Hondarribia*, 16. zk., 1987-09: 9.

Ez da gaurko anuntzio, baina bai Hondarribikoa.

Igandea zen 1648ko uztailaren 10an, eta "Matxinen Borda" baserriko gazteak deskantsu ederrean zeuden atarian, eskale bat hurbildu zitzairenean. Gazteleraz egiten zuen, baina bazuen azentu berezi bat eta, azalez ere ilun samarra zenez, gazte haietako batek, Tomas Eizagirrek, lepotik heldu zion, eta esan: *aitortzeko mairua edo morua zela*; besteak, baietz; Eiza Audala zuela izena, berberiarra, esklabu izana eta bere nagusiak, ingeles batek, Andaluziako kostaldean libre utzia.

Tomas Eizagirrek bazekien esklabuak saldu egiten zirela, eta orduan Hondarribiko alkate zen D. Pedro de Zuloaga-rena eraman eta esan zion esklabu honen salmentarik jasotzen zen dirutik berari zegokiona kobratu nahi zuela, legezko zen bezala.

Hala, hilabete eta gero, abuztuaren 9an, jo zuen bandoa Bernardo Antona tanborreroak, Harma Plazarako deia eginaz. Meza nagusiaren ondoan Plaza osorik bete zenean, bandojoleak, alkate jaunaren aginduz esan zuen, denen bistan zegoen moroa salgai zegoela: prezioa, 20 dukat, 220 erreal.

Florentino Portu idazle hondarribiarraren liburuan aurkitu dugu Serapio Mugikak, Artxibero izanak, emandako berri hau. Honek dioenez, hondarribiarrek ez zuten gizon bat salgai ikusi ere nahi, eta gutxiago inork erosten zuela ikusterik; baina norbaitek esan zuen: "Ni egiten naiz horren jabe"... Nor ote zen hau? Eta hondarribiarra zen bera, hain ezaguna zuten Jakobe Laborda, errespeto handiko gizona. Han ikusi zuten serio eta errespeto handiz diruak ordaintzen.

Eta berehala 220 errealak honela banatu ziren denen aurrean:

Preso egon zen denborako janaria ordaintzeko .....	21 erreal
Beste kostak .....	64 erreal
Eskribanori ordaindua .....	<u>24 erreal</u>
	109 erreal

Geratzen ziren 111 erreal nola zabaldu ziren:

Alkatearentzat .....	37 erreal
Erregearentzat .....	37 erreal
Entregatu zuen Eizagirre-rentzat .....	37 erreal

Gero zer gertatu zen?

Hogei dukatak ordaindu zituen Jakobe Laborda jaunak bere seme nagusiari deitu eta agindu zion: *prestatzeko txaluparik ederrens, "Santa Maria Magdalena" izena zuena, eta esklabuak nahi zuen tokira eramateko*. Endaira pasa nahi zuenez gero, haraxe

eraman zuten; baina txalupara igo aurretik, Eiza Audalak muin eman zion Laborda jaunaren eskuari, eta bitartean D. Pedro Zuloaga alkateak disimulatuki eskuratu zizkion Eliza Audalari, orain gizon libre zenari, tokatu zitzaizkion 37 errealak, eta irten zen txalupa Bidasoaz bestalde.

Hara heldu zenean, moroa jaitsi eta Miradorrean bildu zen jendetzari eskerrak eman zizkion, eta askatasuna eman zion Laborda jaunak esan zuen:

*"Guadalupeko Amak zaindu zaitzala!"*